MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

**Goi Eskola Politeknikoa**

Albisteak

# Arrautza jaurtiketa lehiaketaren XV. edizioa eta MUko ikasleek diseinatutako autoen lasterketaren II. edizioa.

2013/05/06

Dena prest San Pankrazio eguna ospatzeko, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren zaindariaren eguna. Egitarauan prestatu den usadiozko jarduera arrautza jaurtiketa lehiaketa da.   Arrautza jaurtiketa egiterakoan hobeto babesten duen gailua egin duten ikasleek edo langileek jasotzen dute saria.  Gainera, Diseinu Industrialeko taldeak antolatutako lehiaketaren ondoren, ikasleek diseinaturiko lasterketa kotxeen txapelketa ospatuko da. Txapelketa honek helburu bikoitza du: alde batetik konpetentzia zientifiko-teknikoak ebaluatzea eta beste aldetik, ikasleen motibazioa sustatzea. Ikasleek egin duten kotxeen karrozeria karbono fibraz indartutako material konposatuaz osatuta dago, 1/18ko eskalan eta kotxea irrati frekuentziaz kontrolatuko da. Denentzat abiapuntua trakzio eta norabide sistema osatzen duen plataforma estandarra da.




San Pankrazio